



BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren helburua ikasleen artean oso zabalduta dagoen arazo bati irtenbidea ematea da: egunean zehar nahikoa ur ez edatea. Ikasle askok ez dute hidratazioari garrantzirik ematen, edo, besterik gabe, ura edatea ahazten zaie klase artean, azterketak egiten ari direnean edo kirola egin ondoren. Ur gutxi edateak ondorio negatiboak izan ditzake, adibidez, nekea, buruko mina, kontzentrazio falta eta errendimendu txikiagoa eskolan. Horregatik, ikasleen egunerokoan lagungarria izango den ur-botila berezi bat sortu dugu.

Gure botilak kolorez aldatzen den tapoia dauka, erabiltzaileari bere hidratazio-maila adierazteko. Tapoia gorri dagoenean, argi adierazten du ura edateko unea dela; horia dagoenean, edatea komeni dela esan nahi du; eta berdea denean, erabiltzailea ondo hidratatuta dagoela erakusten du. Proiektu honen berrikuntza da teknologia sinplea erabiltzen duela, aplikaziorik edo ezagutza teknikorik behar izan gabe, eta horrela edonork erraz ulertu eta erabili ahal izango du.

Merkatuan badaude ur-botila asko, baina gehienek ura gordetzeko baino ez dute balio. Gure botilak, ordea, erabiltzaileari ohitura osasungarriak sortzen laguntzen dio. Kolore-sistema oso bisuala eta erraza da, eta ikasleek begirada batekin jakin dezakete beren egoera. Horrek bereizten gaitu, gure produktuak ez duelako soilik ura edukitzen, baizik eta osasuna zaintzen laguntzen duelako.

Gainera, gure botila ikasleentzat pentsatuta dago: arina da, motxilan erraz sartzen da eta eguneroko erabilerarako segurua da. Diseinu aldetik bezero bakoitzak aukera dezake kolorea. Teknologia sinple bat dauka eta tapoiaren goikaldean detektore bat du.

Bezeroek gure botila erostea aukera ona da, osasuna zaintzen laguntzen duelako. Ura edatea funtsezkoa da gorputzarentzat, eta gure produktuak hori gogorarazten du modu jarraituan baita erraz eta atseginean. Ikasleek ez dute ahaztuko ura edatea, tapoiaren koloreak noiz edan behar duten esango dielako.

Bestalde, gure botilak prezio eskuragarria izango du, ikasleek edo familiek ia denek erosi ahal izateko modukoa. Produktu erabilgarria da, egunerokoan erabiltzen dena, eta epe luzera osasunean onurak ekar ditzake. Gainera, opari gisa ere aukera ona da, praktikoa eta erabilgarria delako. Laburbilduz, gure botila erostea inbertsio txiki bat ditzake, baina onura handiak ekarri ditu, bai osasunean bai eguneroko ohituretan.